

ITEMAK	LABek eskatzen zuena (dekalogo)	Hezkuntza akordioak esaten duena
<p><b>Estrategikotasuna: Lurraldetasunaren eta hezkuntza-eskumenen auziez</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal Herriko hezkuntza sistema burujabe eta propioa eraikitzeko “Euskal Eskola Publiko Komunitarioa” gure ortzimuga.</li> <li>Hezkuntza eskumen osoak Euskal Herrian. Administrazio bakoitzak hezkuntza-lege propioak izanik, eskumen osoak eskuratuz eta Euskal Herriko gainerako lurraldeekin izan beharreko harremana egituratuz.</li> <li>Hezkuntza eskumen osoak eskuratzeko laikotasun osoa ezartzea ahalbidetuko luke, Estatu espainolak Konkordatuarekin duen akordioa gainditu eta eskola guztietatik erlijioa kanpo utziz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Ez du ezer esaten.</i></li> <li><b>Laikotasunik ez, legeak ezartzen duen minimoa ezarri behar da. Konkordatoaren arabera, eskaria balego eskaintza egin beharra.</b></li> </ul>
<p><b>Segregazioez</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>(LABen dekalogoan aurkeztu genuen:)</b> <i>Segregazio oro gainditzeko neurriak hartu, besteak beste, kontrol publikoa bermatuko duen udal mailako planifikazioa eta eskolaratze prozedura bateratua ezarri; non udal horretan dauden eta finantziario publikoa jasotzen duten eta titularitate ezberdinekoak diren eskoletako haur eta ikasleen matrikulazio eta eskolaratzea planifikatuko den. Doakotasun erreala bermatu, kuotak desagerraraziz eta euskararen murgiltze eta mantentze eredia garatu.</i></li> <li>(Otsailaren 18an lehen zirriborroari egindako ekarpenetan jaso genuen:) LABek proposaturiko herri mailako eskolaratze eta planifikazio batzorde bateratuak aipatzen ditu testuak. Hala ere, gaiaren garrantziak sakontasun gehiago eskatzen du. Matrikulazio guztiaren planifikazioa egiteko Hezkuntza Sailaren eta udalen arteko ko-gobernantza formulak garatu ahal izateko sortu beharreko batzordeek baliabideak, eskuduntzak eta izaera loteslea behar dute ezinbestean. Soilik horrela lortu daiteke tokian tokiko beharrei erantzunez segregazioa gainditzeko proposamen integralak garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarrizketa aktiboko prozesu bat bultzatuko da hezkuntza komunitatearekin, <b>2023an eskola-segregazioaren aurkako itun</b> bat lortzeko helburuarekin.</li> <li><b>Legeak tokiko hezkuntza-kontseiluak eratzeko</b> aurreikusten du. Tokiko Eskola Kontseiluari <b>kontsulta egingo zaio</b>.</li> <li><b>Herri mailako planifikazioa</b>, eskolaratze-prozedura bateratuak eta finantziario publikoa jasotzen duten titulartasun ezberdineko ikastetxeetako ikasleen matrikulazioaren eta eskolaratzearen planifikazioa tresna egokiak izan daitezke helburuok lortzeko (<b>ez-loteslea</b>).</li> <li>Ikastetxea askatasunez aukeratzeko aukera konbinatzen duen ikasleen onarpenari buruzko araudia eguneratzea, <b>baremazio-irizpideak birpentsatuz</b> (errenta baxuen pisu handiagoa, hurbiltasunaren pisua, puntu “dinamiko” ezabatzea, puntu “diskrezionala” ezabatzea, etab.), hala nola ikasle ahulentzako plazak gordetzea, etab.</li> <li><b>Ikasleak onartzeko prozedura bakarra</b> arautuko da, hezkuntzarako eta sarbiderako eskubidea berdintasun-baldintzetan bermatzeko. Erregulazio horretan, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelakoengatik bereiztea saihesteko</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• (Otsailaren 18an lehen zirriborroari egindako ekarpenetan jaso genuen:) Sistemaren eta finantziazioaren kontrola gauzatzeko instituzioen auditoriak eta ikuskaritza propioak behar dira eta testuan agertu behar dira. Abiapuntutzat hartu behar dugu ituntze-sistemaren legeak esaten duen hori -kuotarik ezin dela kobratu- egun ez dela betetzen, hortaz, zein zuzentze neurri eta kontrol mekanismoa ezarriko diren zehaztea ezinbestekotzat dugu.</li> </ul>	<p>beharrezko neurriak ezarriko dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>ISEI-IVEI</b> urteko planaren barruan <b>ekitatea behatzeko eta lurralde bakoitzaren egoerari buruzko datuak jasotzeko lan-ildoak</b> sartzea, emaitzei, ekitateari, bereizketari, kontzentrazioari eta baliabideei dagokienez. Ebaluazio guztiak publikoak izango dira.</li> <li>• Eskola-plaza baten kostuari buruzko azterlan bat sustatzea, irakaskuntzaren doakotasun eraginkorrerantz aurrera egiteko tresna gisa.</li> <li>• Irakaskuntzaren doakotasuna behatzeko eta irakaskuntzagatik <b>kuotak kobratzeko praktika ireki edo estali oro desagerrarazteko beharrezko diren kontrol-mekanismoak</b> aktibatzea.</li> <li>• Gizarte-intereseko zentroak ezarritako auditoretzei eta kontabilitateko gardentasun-arauei atxikitze beharrezko araudia garatzea, diru publikoaren erabileran izaera finalista ziurtatzeko eta beste finantzaketa-iturri batzuen joan-etorrian euskal hezkuntza-zerbitzuko zentro guztien artean irizpide auditagarriak bateratzeko. Araudi horretan, <b>auditoria ekonomikoko lanak egiteko zehaztuko den administrazio-unitatea sortuko da.</b></li> <li>• Funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztiek jarduera osagarriengatik edo zerbitzu-jarduerengatik egingo dituzten kobrantzak onartzeko prozedurak ziurtatzea, eta onartutako zenbatekoak eta horiek kontzeptuak gutxienez urtean behin argitaratzea Hezkuntza Sailaren webgunean, behar bezalako gardentasuna bermatze aldera.</li> <li>• <b>Lanaldi zatitua</b> finkatzea, behar bezala baimendutako salbuespenetan izan ezik.</li> <li>• <b>Hezkuntza Konplexutasun Indizea</b> izaera publikoz arautzea, ekitatearen arloko hezkuntza-politikako erabakiak hartzeko.</li> <li>• <b>Eskola-plangintzari buruzko araudia eguneratzea</b>, gutxienez: jaiotze-tasaren testuinguru honetan, plangintza arrazionalizatzea, eskariaren beharretara egokitutako eskaintza eginez, gehiegizko eskaintzak saihestuz eta eskaintzak urratuz, segregazioa</li> </ul>
--	--	---

		<p>areagotzeko aukera eman baitezakete; ikastetxeen arteko aniztasunaren banaketa orekatua; eta eskariaren zordun ez ezik, hezkuntza-plangintzaren, eskaintza publiko nahikoa ziurtatzearen, hezkuntzan parte hartzearen eta gizarte-kohesioa bilatzearen printzipioen arabera egingo da eskaintza.</p>
<b>Deszentralizazioaz eta autonomiaz</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi zentzutan: 1- <b>Botere publikoaren deszentralizazioa</b> (publikotasun berri bat sortuz): Eskola eta ikastetxe guztietan udal mailatik kudeatuko den deszentralizazio <i>orekatzailea aplikatu. Boterea eta baliabideak deszentralizatzeaz ari gara, ikastetxeetarako baliabideak era orekatuan banatzeaz.</i> 2- Deszentralizazioa ikastetxeei eskubide eta betebeharrak emateko, eta ondorioz, ikastetxeen <b>autonomia eta parte-hartzean sakontzeko</b>: <i>Deszentralizazioa, eskolek hezkuntza egitasmo iraunkor, autonomo, parte hartzaile eta eraginkorrak garatu ahal izateko; hezkuntza egitasmoaren subjektua bertako hezkuntza komunitatea izanik.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko administrazioekin baterako gobernantza-esparrua garatzea. Udalerrien eta udaleko eskola-kontseiluen parte-hartzea bideratzeko, lerrokatzeko eta zabaltzeko balioko du, gutxienez zerrendatuta ageri diren gaietan. <b>(Ez da erabakitzailerik)</b></li> <li>• Eredu honen garapenak giltzarri bat du: hezkuntza-erakundearen <b>autonomia</b>. Eta horrek esan nahi du, hezkuntza-proiektuek behar duten lidergo pedagogikoaren autonomia eta hezkuntza-proiektua kudeatu eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetzeko autonomia.</li> <li>• Gure herriaren errealitatean oinarrituta, Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak birformulatuko ditugu, betiere hezkuntza-deszentralizazioa, toki-erakundearen protagonismo zabalagoa, familien partaidetzaren sustapena eta hezkuntza formala eta ez-formalaren arteko elkarlana direlarik ortzi-muga. Lege berriak ausardiaz eta ilusioz erraztu behar du bide hori, gizarte osoaren eta erakunde guztien konplizitatea bilatuz.</li> </ul>
<b>Euskal Curriculumaz</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• (Otsailaren 18an aurkeztutako ekarpenetan jaso genuen:) Euskal Curriculumaren inguruko gogoeta sakonagoa egin beharko litzateke. Euskal Herriko ondare linguistiko, kultural eta soziala berritzearekin batera, curriculum feminista, berdinzale eta antiarrazista baterako diseinua jaso beharko litzateke.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ez du ezertxo ere esaten.</b></li> </ul>
<b>Murgiltze eta mantentze sistema</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Doakotasun erreala bermatu, kuotak desagerraraziz eta euskararen murgiltze eta mantentze ereduak garatu.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Hezkuntza Sistemaren esparru eleaniztuna eta kulturartekoa (akordioan hobeturiko atala, komeni da osorik irakurtzea).</li> </ul>

<p><b>duen ikas-eredu bakarraz</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• (Urtarrilaren 24ko prentsaurrekoan hauxe esan genuen:) Euskalduntzen duen eredu orokortu bat ezarri behar da: Hezkuntza Akordioa mugarria izan beharko luke euskalduntzeari dagokionez. Euskararen murgiltze eta mantentze eredu orokortu bat beharrezkoa dugu. Euskalduntze prozesua ataka batean dago, politika publikoen gabezien ondorioz eta erdaraz mintzo diren teknologi berrien eraginez ere. Hizkuntza ereduak gainditu beharra dago, ez dutelako euskalduntzen eta baita segregazio aldagai direlako. Euskalduntze politika ausart, integral eta erradikalak behar ditugu.</li> <li>• (Otsailaren 18an lehen zirriborroari egindako ekarpenetan jaso genuen:) Zirriborroan aipatzen da euskara ardatz izango duen hizkuntza eredu bakarra ezartzeko asmoa. LABen ustez, zehaztapen gehiago behar da: euskararen murgiltze eta mantentze eredu definitu eta ezarri behar da hezkuntza komunitate osoarentzat 0 urtetatik Lanbide Heziketa bitarte.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Legeak, <b>euskara ardatz hartuta, hezkuntza eleaniztunaren alde</b> egingo du proiektu integral bidez, hizkuntza-ikaskuntzan eragin biderkatzailea sortzeko. Ildo horretan, Euskal Hezkuntza Sistemak apustu egiten du ikasle guztiek, familia-jatorria edozein dela ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, Euskadiko bi <b>hizkuntza ofizialetan hizkuntza-gaitasun egokia eta nahikoa izatea (B2 maila) eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean ezagutza izatea (B1 maila) ahalbidetzearen alde. (Elementu nahasgarri batzuk ditu, hizkuntza ereduak desagertuko diren ez du argi esaten, euskararen murgiltze sistemaren eredu orokorturik ez)</b></li> <li>• Ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektuan egituratuko da esparru komun baten barruan (nolakoa den esparru hori zerrendatzen da akordioan).</li> <li>• <b>Hizkuntza curricularretan irakasleek daukaten gaitasuna hobetuz</b> joateko neurri batzuk jarriko dira abian akordioan ezarritako irizpideenetan oinarrituz. Irakasle asko euren euskara-abileziak direla eta eroso ez daudela jakina da, batez ere lanetik kanpo euskara erabiltzeko aukera gutxi dituztenen kasuan. Auzi honi helduko diogu eta behar duten irakasleei laguntza eskainiko diegu C1+ maila eta bereziki ahozkoan abilezia bikaina lortu dezaten. <b>(gainerako langileen euskara gaitasunez ez dio ezertxo ere ez)</b></li> <li>• <b>Lanbide Heziketako eta araubide bereziko irakaskuntzen curriculumek</b> ere bermatuko dute ikasleek eskuratuko dutela heietako bakoitzari dagokion irakaskuntzako eta lanbide-eremuko hizkuntza-gaitasun teknikoa. <b>(Hizkuntza-ereduak gainditzten dituen eredu orokortuaz ari da hemen ere? Ez dugu uste. Ez du ezer aipatzen B+ ereduaren desagertzeko beharraz, ez eta langileen perfil linguistikoaz)</b></li> </ul>
<p><b>Titularitateaz eta publikotasunaz</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Publikotasunaz:</b></li> <li>• <b>Sare bakarretako bidea, egungo hezkuntza-sistema duala gainditu beharra. Euskal hezkuntza-sistema publiko baterako</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Publikotasunaz:</b></li> <li>• <b>Ikastetxeen autonomia bai (aurreko puntuan azaldua)</b></li> <li>• <b>Deszentralizazioaz gutxi, sakontzeko beharra: tokiko eskola</b></li> </ul>

	<p>bidea, konfluentziatik sortua, titularitate publikoa izango duten eta parte hartze komunitarioan oinarrituriko herri eta auzo eskolez osatutako sare bakarra.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• (Urtarrilaren 24ko prentsaurrekoan hauxe esan genuen:) Eskola publikoa ardatz duen publikotasun berri baten alde egin behar da: Egungo egoeran, eskola publikoarekiko desoreka egin behar da/du administrazioak, baliabidez hornitu eta erdigunean jartzeko garaia da. Egun administrazioa ez da behar besteko inbertsiorik egiten ari eskola publikoan. Deszentralizazioan sakondu eta eskola bakoitzak hezkuntza egitasmo iraunkor, autonomo, parte hartzaile eta eraginkorrak garatu ahal izateko, plantillak egonkortzea lehentasunezko neurria da.</li> <li>• (Zirriborroari aurkeztu genizkion ekarpenetan, prentsa-oharrean jaso genituen, 2022.02.18) Eskola publikoa erdigunean jarri eta beratu ardatz duen hezkuntza-sistema eraikitzeaz aritu beharko litzateke testua, titularitate publikoa eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea uztartuko dituen sare bakarreranzko trantsizio bide gisa. Egun indarrean dagoen eredu dualetik sare bakarrerako bidea egitea planteatzen dugu, konfluentziatik -eta ez sareen elkarbizitza eta betikotzetik- sortutako bidea eginez. Deszentralizazioan oinarrituriko publikotasun berri batean oinarrituko litzatekeena.</li> <li>• Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3) hezkuntza sistemaren barruan eta eskola mapetan integratu eta Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna bermatu behar da.</li> <li>• Publikotasun berriaz ari garenean: deszentralizazioan oinarritzen den hori (botere publikoaren deszentralizazioa eta ikastetxe bakoitzaren autonomia).</li> <li>• <u>Titularitateaz:</u> Finantziazio publikoa jasotzen duten ikastetxeen titularitatean</li> </ul>	<p><b>kontseiluak ez-lotesleak; ko-gobernantzaz aipamenak, nola egingo den zehaztu gabe; 0-3a udal mailatik planifikatua, Haurreskolak Partzuergoak -udalen eta Hezkuntza Sailaren arteko partzuergoa- (eskaintzaren unibertsalizazioa, doakotasuna)?</b></p> <p><u>Egungo eskola publikoaz:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema horretako protagonismoa eskola publikoari dagokio, oinarritzko erreferentzia baita ikasle guztientzako sarbide unibertsala bermatzen duelako eta inplikaturako gizarte-sektore guztien parte hartzea sustatzen duelako. Horregatik, nabarmentzekoa da, halaber, botere publikoek eskola publikoarekiko duten erantzukizuna eta konpromisoa, finantzaketa nahikoa eta egonkorra emanez eginkizunak kalitate- eta eraginkortasun- irizpideen arabera garatu ahal izateko. <b>(Paperean jaso bai, hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua da. Zenbateko finantziarioa den kuantifikatzeko beharra)</b></li> <li>• Eskola Publikorako Plan Estrategiko bat onartzea, haren kalitatea hobetzeko hainbat jarduera sustatzeko, hala nola ikastetxeen balio erantsia hobetzera bideratutako neurriak, egungo plantillak sendotzea, hezkuntza-figura berriak sortzea, irakasleen egonkortasuna, azpiegiturak berritzea eta hobetzea. Era berean, ikastetxe publikoen perimetroa handitzea sustatuko du, hirigune berrietan ikastetxe publikoak sortuz, plaza publikoak zabalduz eta, bereziki, hiri-eremu horietan helburu eraginkorrak izango direla ziurtatuz. Plan hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko da <b>(ez du zehazten noiz, premiazkoa da, legearen aurretik izan behar da).</b></li> <li>• Gehienez ere urtebeteko epean onartzea Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua eratzea ahalbidetzen duen araudia.</li> </ul> <p><u>Titularitateaz:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Hezkuntza Sistemak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza</li> </ul>
--	--	---

	<p><i>esku hartze publikoa bermatu, udalak edo mankomunitateak ere parte hartu dezan ikastetxeen titularitatean, ikastetxearen jabetzaren parte izanik. Honela, sare bakarreranzko bidean, trantsizio gisa, bi titularitate mota leudeke: batetik, eskola publiko autonomoak; eta bestetik, titularitate mistoko eskolak (udala/mankomunitatea ikastetxeen jabetzaren parte izanik)</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Publikazioerako marko adostu baten beharra, derrigorra izango ez den publikazioerako: hala eskatzen duten itunpeko eskolak borondatez eta modu adostuan publikatu ahal izateko marko orokor eta adostua.</li> </ul>	<p>duen ikastetxe guztiak biltzen ditu. Ikastetxeen arteko araubide juridikoan dauden aldeak funtsezkoak dira alderdi askotan eta ez dira oztopo aniztasuna horretatik gizartean betetzen duten eginkizuna aitortu behar izateko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-itunen bidez, Eusko Jaurlaritzak funts publikoekin sostengatuko ditu, titulartasun publikokoak izan ez arren, legeak ezarritako printzipioak eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeak, lege berriak ezarriko dituen konpromiso eta betebeharrak bere gain hartuta.</li> <li>• <b>(Konfluentziatik sare bakarreranzko bidea egiteko aukera galdua; tarteko eszenatoki gisa: titularitate partekatuz ezertxo ere ez)</b></li> <li>• <b>(Sistema dualak bere horretan jarraitzen du, titularitate publikoko eta parte-hartze komunitarioko eskolek osatutako sare bakarrerako norabideaz ez dio ezer).</b></li> <li>• Hezkuntza administrazioak bere ohiko planifikazio beharrei erantzunez garatuko du ikastetxeen publikazioa ahalbidetu dezakeen araubidea <b>(langileekin negoziatu eta adostearen beharraz ez dio ezer).</b></li> </ul> <p><u>Euskadiko Eskola Kontseiluz:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskadiko Eskola Kontseilua eraberritu egingo da, lege berriaren printzipio eta helburu nagusiekin koherentzian. Bertan, ikastetxeek zein tokiko hezkuntza kontseiluek eta gizarte-eragileek ordezkaritza izango dute. Eginkizun nagusiak dira: udal zein ikastetxeetako kontseiluekin sinergiak sustatzea eta ikasleek zein ikastetxeek parte har dezaten erraztea. <b>(Confebask-ek ere parte hartzen jarraitu behar du? Gure ustez ez)</b></li> </ul>
<p><b>Ituntze unibertsalarekin bukatu eta finantzazioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ituntze unibertsalarekin amaitu, egungo ituntze sistemaren arabera, finantziario publikoak ez dauka inolako mugarik.</b></li> <li>• <b>Finantziario publikoaren jasotzeko irizpideak: euskalduntzea (hala egiten ez dutenei D eredurako ibilbide tasatua ezarriz), hezkidetzaren, laikotasuna, inklusioa, euskal curriculum eta</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal hezkuntzaren zerbitzu publikoa ikastetxe publiko eta kontzertatuak medio emango da. <b>Bete beharrezko baldintzak: curriculum eta ebaluazioa (ez dio euskal curriculumari erreferentziarik egiten), hizkuntza, parekidetasuna, laikotasuna (konkordatuaren arabera ezarritakoa, eskaria badago eskaini</b></li> </ul>

<p><b>baldintzatzeaz</b></p>	<p>aukera berdintasuna.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Haur eta ikasleen oinarrizko hezkuntza beharrak (eremu sozialari, ongizate fisiko eta psikikoari eta akademikoari erantzuten diotenak) -eta soilik horiek- %100 finantzatuko dira, irizpide orekatzaileen arabera, sozialki baldintza zailagoetan daudenak gehiago lagunduz.</li> </ul>	<p><b>beharra</b>), ikastetxeen gobernantza, hezkuntza proiektu komunitarioa eta hezkuntza eskaintzaren planifikazioa, segregazioaren kontrako konpromisoa (hezkuntza-administrazioak zein Tokiko Hezkuntza Kontseiluek zehaztutako neurriekin bat egingo dute), <b>kontratazioa, ikastetxeetako azpiegiturak tokiko hezkuntza-kontseiluek adostutako besterako erabilerak izan ahal izatea, eta irabazi asmo eza.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hezkidetza</b> da Euskal Hezkuntza Sistemaren laugarren ardatza. Ikasle orok hezkidetzan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du. (...) Euskal Hezkuntza Sistemako ikastetxeek hezkidetza plan bat izango dute. Parekidetasuna, aniztasuna eta askatasuna ikastetxe osoarentzako printzipioak izango dira eta esplizituki tratatuko dira curriculumean zein zeharlerrokotasunez.</li> <li>• Euskal Hezkuntza Sistemak bermatuko du ikasle orok <b>krisi ekologikoaren</b> testuinguru historikoan bizitzaren iraunkortasunaren alde ekiteko gaitasunak eskuratzea.</li> <li>• Irizpide hauek modu progresiboan betetzeko konpromisoak hartzen dituzten ikastetxeek finantziario publikoa jasoko dute eta, ondorioz, <b>Euskal Hezkuntza Zerbitzuko</b> partaide izango dira.</li> <li>• Ikasleen premiak %100ean finantzatuko dira, eta, ekitate-irizpideen arabera, beken eta laguntza publikoen politika baten bidez, gizarte-baldintza zailenetan daudenei laguntza handiagoa emateko.</li> <li>• Funtsezko etapa da <b>Haur Hezkuntza</b>, haurren garapen psikomotorrarako, beren sozializatorako eta euskara barnerratzeko, besteak beste. Ikas-etapa honi aitortza berezia egiten diogu, haurren garapenean eta autonomiak duen balioagatik. Derrigorrezkoa ez bada ere, eskaintza unibertsalekoa, kalitatezkoa, bideragarria eta doakoa izango du. Horretarako, <b>Haurreskolak Partzuergoa berrindartuko da eskaintza unibertsaleko, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko bilakatu dadin.</b> Arreta goiztiarra bertan txertatuko da, premia bereziak dituzten ikasleen beharrak modurik egokienean asetzeko neurriak hartuko dira. <b>(ulertu daiteke 0-3ko</b></li> </ul>
------------------------------	--	--

		<b>diru-laguntzak desagertzen direla? Zer gertatzen da 0-3arekin?).</b>
<p><b>Hezkuntza inbertsioa handitu eta kalitatea ere</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Hezkuntzan inbertsioa handitu (Europako erreferentzia kontuan hartuz, gutxienez BPGren %6a) eta ratioak zein lan zamak jaitsi langile kolektibo guztietan. Inbertsioak hezkuntza prozesuen kalitatea handitzeko izan behar du, ez soilik lan zamak arintzeko. pedagogikoa kritikoetan oinarrituriko berrikuntzetan zein arlo estrategikoei dagokion (murgiltze eredu-pedagogia feminista-inklusioa) prestakuntzan eta baliabide materialetan inbertitu behar da.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Hezkuntzan inbertsioa handitzeko konpromisoa azpimarratuko dugu, 2035. urteari begira. Ondorioz, Hezkuntzari buruzko Euskal Legeak memoria ekonomiko bat egingo du, hezkuntza-akordio honen helburuak lortzeko eta bere esku-hartze ildoak eta neurriak aplikatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak zehazteko. <b>(Ez du zehazten zenbat)</b></li> </ul>
<p><b>Programa kontratuak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• (Otsailak 18an egindako ekarpenetan jaso genuen:) Programa-kontratuarekin kontu handia izan behar delakoan gaude. Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin hezkuntza egitasmoa burutzeko beharrezko dituen baliabideak adostu ditzakeen arren, hezkuntza-sistemak egiturazko curriculumak izan behar du, hezkidetzak, aniztasunaren trataera eta inklusioa, laikotasuna eta euskara eta euskal kultura ikastetxe guztien hezkuntza egitasmoaren oinarri izan behar dira. Klase-sozialen, sexu-generoaren edo/eta arrazializazioan oinarrituriko zapalkuntzei hezkuntzak era integral eta kritikoan erantzun behar die, ezin da hautazkoa izan. Aipatutakoaz gain, mekanismoak ezarri behar dira programa-kontratuak ikastetxeen arteko lehia sustatu ez dezaten eta segregazio-iturri bilakatu ez daitezten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programa-kontratuak tresna juridikoa, ekonomikoa, finantziarioa eta plangintza estrategikorako tresna da, plan horretako gidalerroak gauzatzen laguntzeko. Bertan, programan sartzeko baldintzak, esleitutako aurrekontua, ikastetxeari esleitzen zaizkion baliabide teknologikoak eta pertsonalak eta ebaluazioaren emaitzen kudeaketa-adierazleak zehazten dira.</li> <li>• Ikastetxeei beharrezko langileak eta baliabideak esleitzeko programa-kontratuak formalizatzea sustatzeko araudia garatzea, urteko planak eta izaera bereziko edo estrategikoko proiektuak garatzearen baldintzapean, Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoan esparruan.. Kontratu horiek sustatuko dira, bereziki, konplexutasun handiko zentro guztietan, Administrazioaren laguntzarekin hasierako desabantaila-egoera ekarriko duten proiektu arrakastatsu osoak edo partzialak bultzatzeko aukera izan dezaten.</li> </ul>
<p><b>Digitalizazioaz</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• (Otsailaren 18an lehen zirriborroari egindako ekarpenetan jaso genuen:) Digitalizazioaz bi ekarpen gehitu nahiko genituzke. Batetik, hezkuntza komunitateko pertsonen eskubide digitalak bermatuko dituen <i>digitalizazio demokratikoa</i> (Big</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hau guzti hau, ikasleen eskubide digitalak eta pribatutasuna errespetatuz eta bitarteko teknologiko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiliz egingo da.</li> <li>• Digitalizazio-plan bat egitea eta garatzea, beharrezkoak diren azpiegiturak eta tresnak ez ezik, material digitalak, irakaskuntzarako trebakuntza-planak eta tresna horiek erabiltzeko</li> </ul>





<p><b>Prestakuntza eta sarbide eta lan-baldintza berberak. Sarbide bakarra</b></p>	<p><i>kontziliaziorako neurriak.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><i>Hezkuntza langile guztientzat prestakuntza, sarbide eta lan baldintza berberak izango dituen sistema diseinatu beharra dago. Sarbideari dagokionez, gaitasun eta merituetan oinarrituriko hautagai guztien arteko aukera berdintasuna, prozesuaren gardentasuna nahiz kontratazioaren gaineko kontrol publikoa (hezkuntza komunitatearena) eta gainbegiratze sindikala ziurtatu beharra dago. Sarbidea bakarra izan behar da eta kontratazioa administrazioak egingo du era deszentralizatuan. Hezkuntza komunitateak erabakitako hezkuntza egitasmoa garatzeko profilak zehaztuko ditu.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratazioa: Administrazioaren jabetzakoak ez diren Euskal Hezkuntza Zerbitzuko ikastetxeek langileen kontratazio prozesu garden eta demokratikoak garatuko dituzte eta horretarako bermeak ezarriko ditu hezkuntza-administrazioak. <b><i>(Sarbidea aukera berdintasunean, meritoetan eta gaitasunetan oinarritua egon beharra)</i></b></li> <li>Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onartutako zenbait proposamen jasoko ditu legeak, euskarari buruzko diskurtso partekatua sortzeko eta euskararen aldeko giro egokia indartzeko, Lanbide Heziiketan eta hezkuntza ez-formalean euskararen presentziaren jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa bultzatzeko, hezkuntzako profesionalen komunikazio-gaitasuna hobetzeko eta hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera bideratzeko modu berriak ikertzeko eta garatzeko.</li> </ul>
<p><b>Eremu publikoko langileentzat neurri laboralak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Batetik, langile kolektibo ezberdinetan beharrezkoak ditugun LZak (lanpostu zerrendak) handitzea eta egokitzea, hauek euskarazko perfila dutela bermatuz. Norabide horretan, premiazkoa da behin-behinekotasunarekin amaitzea, kontsolidazio prozesuak burutzea eta EPE ereduak guztiz aldatzea. Bestetik, lan hitzarmenei lotutako eskariak.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleak egonkortzeko beharrari aipamenak testu osoan zehar.</li> </ul>
<p><b>Konfluentzia lan-baldintzetan: itunduetako langileen homologazioa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Konfluentziaren bidez hezkuntza sistema berrian integratuko diren itunpeko eskolak diren ikastolak eta gizarte ekimeneko ikastetxeetako langileekiko lehentasunezko neurri laboralak:</i></li> </ul> <p><i>Ikastoletako zein gizarte ekimeneko ikastetxeetako</i></p>	

	<p><i>langileentzat, eremu publikoko langileen lan-baldintzen homologazio eta ekiparazioa lortzeko neurriak. Horrekin batera, kontratazioetan gardentasuna, langileen prestakuntza, euskara gaitasuna eta laikotasuna.</i></p>	
<p><b>Langileon parte-hartzeaz</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eztabaida ireki izanaren aukera pulsu gisa ulertzen dugu guk, borroka eremu gisa, eta hor, langileon interesak defendatzen dituen akordioa erdiestea dagokigu. Beste inork ez baitu egingo.</li> <li>• Gure helburua, beraz, indar euskaltzale, feminista, ezkertiar, antiarrazista eta eraldatzaileak aktibatzea da, hezkuntza akordioa ahalik eta gehien gerturatu dadin euskal eskola publiko komunitarioaren ortzimuga horretara. Egungo egoera iraunaraztearekin ez gara konformatuko.</li> <li>• Ildo honetan, garrantzia handia ematen diogu hezkuntza komunitateak oro har eta zehazki hezkuntzako langileek eztabaida honetan izan behar duten rolari. Parte hartze espazioak eskatu eta baliatuko ditugu, gure proposamenak plazaratzeko. Era berean, gainontzeko hezkuntza eragile eta sindikatuekin harremanetan jarriko gara, adostasunak bilatu eta norabide berean borrokatzeko. Betiere gure autonomia oinarri izanik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-akordioak euskal hezkuntza-eragileen esku-hartze aktiboa eskatzeko du. Orain arte eraikitakotik hasi eta etorkizunari eraginkortasunez eta koonfiantzaz begiratu behar zaio bide horri. Ildo horretan, garrantzia emango zaio hezkuntza-akordioaren garapen sozialari, beharrezkotzat jotzen baitugu estrategikotzat jotzen dugun lege hau oinarri politiko eta sozial sendoetan eraikitzea.</li> </ul>